



*Pausoz pause,  
gure martxan*



**R 400**

**Egilea: Ixone Garmendia**

Atarikoak .....	3
Aniztasuna eta eskola inklusiboa .....	3
Materialaren nondik norakoak .....	4
Ikas-egoerak .....	4
Irizpide metodologikoak .....	5
1.    Ikas-egoera: <i>Nor naiz ni?</i> .....	6
2.    Ikas-egoera: <i>Nola sentitzen naiz?</i> .....	22
3.    Ikas-egoera: <i>Nolakoa naiz ni?</i> .....	62
4.    Ikas-egoera: <i>Nola moldatuko naiz kalean?</i> .....	92
Hiztegia .....	136
Baliabide lagungarriak .....	142
Eranskinak .....	143
Erabilitako baliabideak .....	144
Bibliografia eta webgrafia .....	144

## Atarikoak

Gero eta mundu globalizatuagoan bizi gara, eta horrek erabat aldatu du gaur egungo eskolen zein gizartearen errealitatea. Ikastaldeak, orain, ez dira batere homogeneoak izaten, migrazio-mugimenduen gorakadak kulturartekotasuna eta hizkuntza-aniztasuna areagotu baitute. Ondorioz, sarriago izaten dira gure eskola-sistemara egokitzeko eta euskara hutsetik ikasteko premia duten ikasleak. Hori kontuan hartuta, honako galdera honi erantzuna eman beharko litzaioke: zer neurritan bermatzen zaie hezkuntza-arreta egokia ikasle horiei?

Esan daiteke ikastetxeak “mundu txikiak” bihurtu direla, errealitate anitzak biltzen dituzten espazioak, alegia. Ikasle bakoitzak, bere bizipenekin batera, beste kultura bat eta beste hizkuntza bat ditu: munduari begiratzeko ikuspegi propioa. Jatorrizko herrialdeak atzean utzi izanaren arrazoiak askotarikoak badira ere, ikasle guztiek dute lotune bera: orain euskal herritarrek dira, eta euskara ikasteko premia dute.

Integrazioa bada erronka, bide horretan lehenengo urratsek berebiziko garrantzia dute: eragin handia dute haien motibazioan zein ikaskideekiko eta ikasleekiko jarreran. Ondorioz, hezkuntza-komunitatearen betebeharra da, batetik, harrera samurra izan dadin hasierako urratsoi duten balioa ematea eta, bestetik, kalitatezko hezkuntza bermatu ahal izateko baliabideak eskaintzea.

## Aniztasuna eta eskola inklusiboa

Esan bezala, eskolen ezaugarrietako bat da aniztasuna. Aberastasun horrek pertsonak eta gizataldeak askotarikoak direla onartzea dakar; hau da, ezberdintasunak errespetatzea, bazterkeria ekiditea eta bizikidetzat hartzea.

Esango genuke aniztasunari erantzun egokia ematea dela hezkuntzak duen erronka nagusietako bat: berdintasun ezari aurre egitea eta zailtasunak zailtasun emaitza akademikoak hobetzea. Horrek guztiak eskola gizartera eta gizarte eskolara heltzea eskatzen du, eta, horretarako, neurri integralak hartu behar dira.

Aniztasuna eta inklusioa, bada, estuki daude lotuta. Pertsona eta testuinguru soziala edozein dela ere, bazterkeria-mota guztiak gainditu, eta ikasle guztien premia espezifikoiei erantzun behar izatea dakar horrek.



## Materialaren nondik norakoak

- Ikaslearen parte-hartze aktiboa ziurtatuko da. Ikaskuntza-prozesuan beharrezkoa da jakitea norberak zer egin duen eta nola egin duen. Horretarako, ezinbestekoa da: aukeratzea, akatsak egitea, zuzentzea, ebatzea eta ondorioak ateratzea.
- Ikasleak lehendik dituen ezagutzak berriekin kontrastatu, egokitu eta bere jakintza eraikiko du. Proposatzen diren jarduera guztiak interesgune jakin baten inguruan garatuko dira.
- Konfiantzazko eta segurtasunezko giroa bermatuko da gelan. Bakoitzak pentsatzen eta sentitzen duena errespetatuko da.
- Ikaskuntzak esanguratsuak izango dira eta ikasleen interes eta beharretatik abiatuko dira.
- Lantaldean aritzea sustatuko da eta horrek ikasleek elkarrengandik ikastea ahalbideratuko du.

Hau guztia izan dadila lagungarri atzerritarrekin lanean ari direnentzat.

## Ikas-egoerak

Legeak eskubideak argi azaltzen baditu ere, esperientziak erakutsi digu ikastetxeetan errealitatea bestelakoa dela. Ikasle etorkin askok zailtasunak eta oztopoak dituzte hezkuntza-sisteman erabat integratu ahal izateko. Horren arrazoi nagusia euskararik ez jakitea edota nahikoa ez menderatzea da; hain zuzen ere, hizkuntza da pertsonen arteko harremanetarako, gizarteratzeko eta ikaskuntzarako giltza. Euskara ondo ez menderatzeak ikaskuntzako beharrak ezin bideratzea eta etorkizunean eskola-atzerapenak edo eskola-porrota izatea eragin dezake.

Lan honen helburua da ikasle atzerritarrei gizartean, hezkuntza-sisteman, nahiz lan-munduan integratzen lagunduko dien euskara ikasteko materiala sortzea; izan ere, horretarako beharrezkoak diren baliabideak mugatuak izan ohi dira ikastetxeetan. Materiala ikas-egoeratan dago oinarrituta, eta hasierako urratsetan (AO-A1) ikasleei lagundu eta ikas-prozesua gidatzeko askotariko jarduerak proposatzen dira. Bestalde, jakintzak mobilizatzeko baliabideak izateaz gain, azken zereginari begira prestatu dira jarduerok.



Jarduerak egiten hasi aurretik, garrantzitsua da irakasleak eduki gramatikalak azaltzea: aditzak, galdetzaileak, hiztegia... Eduki horiek ikas-egoera bakoitzari begira planteatu dira, jarduera bakoitzari dagokion eskematxo eta guzti. Gainera, ikasleen ezaugarrietara egokitutako materiala da, eta edukiak oso era adierazgarrian daude azalduta.

Horrez gain, unitate bakoitzaren bukaeran, unitatea lantzen jarraitzeko esteka baliagarriak txertatu dira: hiztegia, zabaltze-jarduerak...

Zeresanik ez, ikasmaterial hau guztia pentsatuta dago ikasleentzat ez ezik atzerritarrekin lanean ari diren irakasleentzat ere.

### **Irizpide metodologikoak**

- Ikaslearen parte-hartze aktiboa ziurtatuko da. Ikaskuntza-prozesuan beharrezkoa da jakitea norberak zer egin duen eta nola egin duen. Horretarako, ezinbestekoa da hau guztia: aukeratzea, akatsak egitea, zuzentzea, ebatzea eta ondorioak ateratzea.
- Irakasleak lehendik dituen ezagutzak berriekin kontrastatu, egokitu eta bere jakintza eraikiko du. Proposatzen diren jarduera guztiak interesgune jakin baten inguruan garatuko dira.
- Konfiantzazko eta segurtasunezko giroa bermatuko da gelan. Bakoitzaren pentsamenduak eta sentimenduak errespetatuko dira.
- Ikaskuntza esanguratsua izango da, eta egin beharrekoak ikasleen interes eta beharretatik abiatuko dira.
- Lantaldean aritzea sustatuko da, eta horrek ikasleek elkarrengandik ikastea ahalbideratuko du.

# 1. Ikas-egoera: *Nor naiz ni?*

## JUSTIFIKAZIOA

Bigarren hizkuntza bat ikasteko, ohikoa izaten da agurtzeko eta aurkezteko formulatik hastea, errespetuaren, estimuaren eta ongietorriaren ikur baitira. Gogoz landu beharreko gaia da hori, ikasleek hizkuntzarekin duten lehendabiziko hartu-emana izango da-eta. Era berean, ikasle etorri berriek premia izaten dute ikaskideekin harremanak izateko; horretarako, ezinbestekoa da lekuan lekuko agurrak ezagutzea eta nork bere burua aurkezten jakitea: lexikoa zein oinarrizko gramatika-baliabideak, ezagutza pragmatikoaz gain.

Herrialde bakoitzak bere formulak eta ohiturak ditu, eta horiek ezagutzeak aukera ematen du munduko hizkuntza- eta kultura-aniztasunaz jabetzeko eta hausnartzeko. Jakina denez, eskolak herrialde askotako ikasleak biltzen ditu, eta aniztasun horrek eskolan duen isla azaleratu eta positiboki balioetsi beharra dago.

## HELBURUA

Agurtzea hitzetatik haratagoko ekintza denez, elementu paralinguistikoek erabat baldintzatzen dute mezua. Ikas-egoera honen bidez, hau lortu nahi da: ikasleek eguneroko harremanetan agurtzeak duen garrantziari buruzko gogoeta egitea.

Herrialde bakoitzak bere agurtzeko formulak baditu ere, etorri berriek hemengo formulak ikastea eta martxan jartzea da asmoa, horixe baita eskola-inklusioa lortzeko lehendabiziko pausoa. Horrekin batera, ikas-egoeraren bitartez, taldekideen arteko errespetua eta kohesioa sustatu nahi da hizkuntzaren ezagutzarekin batera. Horretarako guztirako, aniztasunari erreparatuko zaio, eta taldekideen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak azaleratuko dira, betiere desberdintasunak aberasgarriak direla argi utzita.

## AMAIERAKO ZEREGINA

Ikasleek beren aurkezpen-bideoa egingo dute: *nor naiz, nongoa naiz, non bizi naiz...* Horrez gain, binaka elkarrizketa bat egingo dute, eta grabatu. Bideoan, ikasitakoa islatuko dute.

## ONARRIZKO JAKINTZAK

- Aurkezpen-formulak
- Izenordainak
- *Izan* aditza
- *Nongo* deklinabide kasua
- *Bizi izan* aditza
- Informazioa bilatzeko eta hautatzeko estrategiak
- Hizkuntzaren eta haren unitateen oinarriko nozioak: soinua eta idazketa-sistema, hitzak eta diskurtsoaren antolaketa
- Ahozko eta idatzizko testuak sortzeko, ulertzeko eta analisi kritikoa egiteko estrategiak
- Testuen edukia aztertzeko eta balioesteko jarraibideak
- Estrategia kooperatibo errazak eta talde-lanean aritzeko estrategiak

## JARDUERAK

### Aurkezpen-formulak

#### 1) Agurtu eta galdetu izena zure ondoko lagunari.

- Kaixo, zer moduz? **Ni Juan naiz.**  
Eta **zu**?
- .....
- Kaixo, Miren.  
Nongoa ..... ?
- Ni Gasteiz..... naiz.



- Egun on; zelan? **Nik Ali dut** izena.  
..... ?
- .....

# AGURRAK

**Aurkezteko**  
Kaixo / Aupa  
Zelan? / Zer moduz?



**Agurtzeko**

Agur / Aio	Gero arte
Ondo ibili	Bihar arte
	Ikusi arte

**Egunean zehar**

Egun on	Arratsalde on
Eguerdi on	Gabon

## 1) Bete hutsuneak.

### JENDEA EZAGUTZEN

-Nola **duzu** izena?  
-Nik Afaf **dut** izena. Eta zuk?  
-Nik, Uxue.



-Nor **zara** zu?  
-Ni Afaf **naiz**. Eta zu?  
-Ni, Uxue.

-Nongoa zara?  
-Ni Marokoko **koa** naiz, baina orain  
Amurrion bizi naiz. Eta zu?  
-Ni Txinakoa naiz.



-Kaixo!

-.....! Ni ..... naiz.

Eta zuk, .....?

-Nik Ixone dut izena.


-Ni .....koa naiz.

Nongoa ..... zu?

-Ni .....koa naiz, baina orain  
.....n bizi naiz.



Egin zure aurkezpena.





## Nor izenordaina

		NOR		
		1	2	3
SINGULARRA		NI	ZU	HURA
PLURALA		GU	ZUEK	HAIEK

### 2) Eman subjektua.

Adibidea: Gu lagunak gara.

- \_\_\_\_\_ argalak gara.
- \_\_\_\_\_ elefantea da.
- \_\_\_\_\_ artzainak zarete.
- \_\_\_\_\_ loreak dira.
- \_\_\_\_\_ gazteak gara.
- \_\_\_\_\_ polita zara.
- \_\_\_\_\_ harria da.
- \_\_\_\_\_ suhiltzailea da.
- \_\_\_\_\_ animaliak dira.
- \_\_\_\_\_ auzokideak zarete.

## Izan aditza

<b>PERTSONA</b>	<b>ADITZA ORAINALDIAN</b>	<b>ADITZA LEHENALDIAN</b>
NI	NAIZ	NINTZEN
ZU	ZARA	ZINEN
HURA	DA	ZEN
GU	GARA	GINEN
ZUEK	ZARETE	ZINETEN
HAIEK	DIRA	ZIREN

**HIZTEGIA:**

- IKASLEA
- LAGUNA
- ANAIA
- OSABA
- AITONA-AMONA
- AITA
- AMA
- LAGUNA
- IRAKASLEA
- KIROLARIA
- BIZI

### 3) Eman aditza orainaldian.

*Adibidea: Ni ikaslea naiz.*

- Koldo irakaslea \_\_\_\_\_.
- Zuek gazteak \_\_\_\_\_.
- Ni Mikel \_\_\_\_\_, zuek nortzuk \_\_\_\_\_?
- Gu lagunak \_\_\_\_\_.
- Haiek anaiak \_\_\_\_\_.
- Ni ixone \_\_\_\_\_.
- Hura txakurra \_\_\_\_\_.
- Peio eta Miren Bilbokoak \_\_\_\_\_.
- Zu nire ama \_\_\_\_\_.
- Hura medikua \_\_\_\_\_.

#### 4) Eman aditza lehenaldian.

Adibidea: *laz, ni ikaslea **nintzen**.*

- 2003an, nire ama medikua \_\_\_\_\_.
- Amamaren gurasoak Argentinakoak \_\_\_\_\_.
- Txikitan, zuek oso politak \_\_\_\_\_.
- Gaztetan, gu oso lagunak \_\_\_\_\_.
- laz, haiek Katalunian egon \_\_\_\_\_.
- Umetan, zu kirolaria \_\_\_\_\_.
- Mikelen gurasoak txikitatik lagunak \_\_\_\_\_.
- Peio eta Miren Bilbokoak \_\_\_\_\_.
- 1990ean, herri hau oso txikia \_\_\_\_\_.

### Non bizi naiz? Nongoa naiz?


HIZTEGIA	
Leku-izen arruntak:	Kale(a), parke(a), zinema, etxe(a), denda, geltoki(a)...
Leku-izen bereziak:	Gasteiz, Amurrio, Laudio, Maroko, Sahara, Ukraina...
Leku-postposizioak:	Gainean, aurrean, atzean, azpian, ezkerrean, eskuinean...
Leku-aditzondoak:	Hemen, hor, han.
Zenbaki ordinalak:	Lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren...

Galde- erantzunak	
Nongoa zara?	Ni Gasteiz <b>koa</b> naiz.
Non bizi zara?	Ni Aretan bizi naiz.
Zein da zure helbidea?	Nire helbidea Aizkorri kalea 86, 1.B da.



5) Binaka jarri eta egin zuen buruaren aurkezpena. Lehenengo, idatzi; gero, grabatu elkarrizketa.

-Kaixo, arratsalde on. Nor zara zu?  
-Ni Fatma naiz. Eta zu? Nor zara zu?  
-Nik Miren dut izena. **Nongoa** zara zu?  
-Ni **Saharakoa** naiz, eta zu?  
-Ni **Bilbokoa** naiz. San Frantzisko kalean bizi naiz. Eta zu **non** bizi zara?  
-Ni Basaurin bizi naiz.  
-Ederto! Bihar arte!



.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....



6) Lotu hitz bakoitza dagokion irudiari.



Eskuman  
gainean  
azpian  
ezkerrean

barruan  
aurrean  
atzean



## Non dago zuhaitza?



Zuhaitza **HAN** dago.

Zuhaitza **HOR** dago.

Zuhaitza **HEMEN** dago.

## Bizi izan aditza

<u>PERTSONA</u>	<u>ADITZA ORAINALDIAN</u>	<u>ADITZA LEHENALDIAN</u>
NI	BIZI NAIZ	BIZI NINTZEN
ZU	BIZI ZARA	BIZI ZINEN
HURA	BIZI DA	BIZI ZEN
GU	BIZI GARA	BIZI GINEN
ZUEK	BIZI ZARETE	BIZI ZINETEN
HAIEK	BIZI DIRA	BIZI ZIREN

**HIZTEGIA:**

- IKASTETXEA
- ETXEA
- BASERRIA
- MENDIA
- BASOA
- BASAMORTUA
- HERRIA
- HIRIA

### 7) Eman aditza orainaldian eta lehenaldian.

Adibidea: Ni Gasteizen **bizi naiz**

- Gure irakaslea Bilbon \_\_\_\_\_.
- Zuek Tolosan \_\_\_\_\_.
- Jon mendian \_\_\_\_\_.
- Ni baserrian \_\_\_\_\_.
- Karmele eta Arantza hirian \_\_\_\_\_.
- Gure amamaren etxean \_\_\_\_\_.
- Nire gurasoak Katalunian \_\_\_\_\_.
- Txoriak basoan \_\_\_\_\_.



**8) Sortu esaldiak orainaldian eta lehenaldian.**

- Gu / Donostia / bizi izan.  
.....  
.....
- Kepa / ez / Ondarroa / bizi izan.  
.....  
.....
- Zure adiskideak / Eibar / bizi izan.  
.....  
.....
- Ni / Santurtzi / bizi izan  
.....
- Sendagilea / ez / Muskiz / bizi izan.  
.....
- Gure amona / Orio / bizi izan.  
.....
- Zuek / ez / Madril / bizi izan.  
.....
- Itsaso eta Nekane / Erandio / bizi izan.  
.....
- Ander eta ni / ez / Gasteiz / bizi izan.  
.....
- Zu / Basauri / bizi izan.  
.....

**9) Zuzendu akatsak.**

- Gure guraso Bizkaian bizi dira.  
.....
- Zu Beasainan bizi zara.  
.....

– Mikel eta ni Elorrion bizi zarete.

.....

– Patxi Karmele Lekeitioan bizi dira.

.....

– Zu Usurbil bizi zara.

.....

– Sendagile Donostian bizi da.

.....

– Gure adiskide Eibarren bizi dira.

.....

– Zuek Laudioan bizi naiz.

.....

– Alkatea ez gara Erandion bizi.

.....

– Zu Orduñan bizi zarete.

.....

### 10) Jarri ezezkoan.

*Adibidea: Gu Hendaian **bizi gara**. → Gu **ez gara** Hendaian **bizi**.*

– Zuek Gasteizen bizi zarete.

.....

– Xabi eta Itsaso Durangon bizi dira.

.....

– Ni Bilbon bizi naiz.

.....

– Gure gurasoak Barakaldon bizi dira.

.....

– Zu Gernikan bizi zara.

.....

– Miren Bakion bizi da.

.....

- Gu Elorrion bizi gara.

.....

- Jon eta zu Hernanin bizi zarete.

.....

- Zure lehengusuak Gorlizen bizi dira.

.....

### 11) Jolastu eta berrikusi agurrak.

## AGURREN JOLASA

### Jolasaren arauak:

Lehenengo laukitik hasi beharra dago, eta azken laukira iristen den lehenak irabaziko du.

**Lauki arrosak.** Jokalariak lauki bakoitzak irudikatzen duen agurra asmatu, eta hori erabiltzeko esaldi bat egingo du.

*Adibidea: Goizean, kaixo esaten dugu.*

**Lauki berdeak.** Jokalariak nongoa den edo non bizi den esan, eta ikaskideari ere horretaz galdetuko dio.

*Adibidea: Ni Euskal Herrikoa naiz, eta zu nongoa zara?*

**Lauki horiak.** Famatu baten rola hartu eta beren burua aurkeztuko dute. Famatua aukeratzeko garrantzitsua da laukian adierazitakoa kontuan hartzea: abeslaria den, kirolaria den...

## Materiala:

Dadoa, fitxak eta taula.

## Irudien azalpena:



agur



egun on



abeslaria



jaurti berriro



kaixo



non bizi zara?



marrazki  
bizidunak



Kanporatuta



gabon



nongoa zara?



kirolaria



hasi berriro



arratsalde  
on



aktorea



instagramerra

HASIERA



## 12) Sortu bideoak:

- Norberaren aurkezpen bideoa
- Elkarrizketa

Azalpena:

Grabatu bideoak mugikorra erabiliz, eta, ondoren, editatu *Youcut* aplikazioren bidez.





## 2. Ikas-egoera: *Nola sentitzen naiz?*

### JUSTIFIKAZIOA

Norberarena ez den herrialde batean moldatzea ez da erraza. Ikasleek presioa eta estresa jasatea ohikoa izaten da, eta horrek buruko mina, lo-arazoak, beldurra, kontzentratzeko zailtasunak... eragiten dizkiete. Horrez gain, iheslarien kasuan, esperientzia traumatikoak bizi izana ere ohikoa da.

Beraz, egokitze-prozesua oso konplexua da, eta, adituek diotenez, zenbait fase izaten dira. Elizabeth Coelhok, esaterako, honako lau hauek bereizten ditu:

1. **Hasierakoa.** Heldu berriek urduritasuna eta euforia sentitzen dute.
2. **Shock kulturala.** Kezka, antsietatea, gaizki ulertzea eta harridura sentitzen dute, besteak beste. Hori dela eta, zenbaitetan utzikeria eta jarrera agresiboa agertzen dute.
3. **Baikortasuna.** Shock egoeraren ostean, hasieran baino jarrera baikorragoa izaten dute. Hizkuntza ulertzen hasten dira; kezkak gutxituz, jokabide baikorrak sortzen dira.
4. **Integrazioa eta akulturazioa.** Oreka emozionala berreskuratu dutela sentitzean, onartze-prozesua hasten da.

Ikasleen artean diferentziak izan arren, guztiek izaten dute emozioak identifikatzeko, adierazteko eta kudeatzen ikasteko premia.

### HELBURUA

Emozioak identifikatzen, ezagutzen, azaleratzen eta kudeatzen laguntzea.

## AZKEN ZEREGINA

Ikasle bakoitzak **Sentimenduen inbentarioa** egingo du. Bertan, egunez egun izan dituen sentimenduak adieraziko ditu. Sentimenduez hausnartu eta haien zergatia arrazoituko du. Azken ekoizpen honetan, ikas-egoeran zehar landutako guztia islatuko da.

## OINARRIZKO JAKINTZAK

- *Noren, norena* deklinabide kasuak
- *Egon* aditza
- Kausazko perpausak: *-lako*
- Emozioei dagokien hiztegia
- Galdetzaileak: *nola, zergatik ...*
- Erakusleak
- Informazioa bilatzeko eta hautatzeko estrategiak
- Hizkuntzaren eta haren unitateen oinarrizko nozioak: soinua eta idazketa-sistema, hitzak eta diskurtsoaren antolaketa
- Ahozko eta idatzizko testuak sortzeko, ulertzeko eta analisi kritikoa egiteko estrategiak
- Testuen edukia aztertzeko eta balioesteko jarraibideak
- Estrategia kooperatibo errazak eta talde-lanean aritzeko estrategiak

# JARDUERAK

## Egon aditza

EGON ADITZA			HIZTEGIA:
<u>PERTSONA</u>	<u>ADITZA ORAINALDIAN</u>	<u>ADITZA LEHENALDIAN</u>	
NI	NAGO	NENGOEN	<u>NI</u> POZIK <u>NAGO</u>
ZU	ZAUDE	ZEUNDEN	<u>ZU</u> HASERRE <u>ZAUDE</u>
HURA	DAGO	ZEGOEN	<u>HURA</u> LOTSATUTA <u>DAGO</u>
GU	GAUDE	GEUNDEN	<u>GU</u> BELDURTUTA <u>GAUDE</u>
ZUEK	ZAUDETE	ZEUNDETEN	<u>ZUEK</u> TRISTE <u>ZAUDETE</u>
HAIEK	DAUDE	ZEUDEN	<u>HAIEK</u> NAZKATUTA <u>DAUDE</u> .

### 1) Eman aditza orainaldian.

- Ama jangelan \_\_\_\_\_.
- Ni sukaldean \_\_\_\_\_.
- Zure adiskideak jolaslekuan \_\_\_\_\_.
- Aitona logelan \_\_\_\_\_.
- Zuek harategian \_\_\_\_\_.
- Zu ohean \_\_\_\_\_.
- Ezkongaiak zineman \_\_\_\_\_.
- Ni okindegian \_\_\_\_\_.
- Zuek geltokian \_\_\_\_\_.
- Irakaslea eta ni ikasgelan \_\_\_\_\_.
- Zuek hondartzan \_\_\_\_\_.
- Zure amona azokan \_\_\_\_\_.

- Gu ikastetxean \_\_\_\_\_.
- Abokatuak udaletxean \_\_\_\_\_.
- Miren eta zu egongelan \_\_\_\_\_.
- Zu arrandegian \_\_\_\_\_.
- Nire gurasoak lantegian \_\_\_\_\_.
- Apaiza elizan \_\_\_\_\_.
- Beñat eta ni basoan \_\_\_\_\_.
- Zu liburutegian \_\_\_\_\_.

**2) Jarri ezezkoan.**

*Adibidea: Miren eta ni institutuan gaude. → Itziar eta ni **ez gaude** institutuan.*

- Zuek mendian zaudete.  
.....
- Jon eta Itsaso egongelan daude.  
.....
- Hura ikasgelan dago.  
.....
- Zuen gurasoak etxean daude.  
.....
- Zu kiroldegian zaudete.  
.....
- Gu hemen gaude.  
.....
- Nire ahizpa Alemanian dago.  
.....
- Irati eta zu lanean zaudete.  
.....
- Gu hondartzan gaude.  
.....

### 3) Zuzendu akatsak.

– Zu atarian zaudete.

.....

– Ni ez egon mendian.

.....

– Artzaina mendian daude.

.....

– Zuk triste zaude.

.....

– Lagunak kontzertuan zaude.

.....

– Zure lehengusu klasean daude

.....

– Katua zuhaitzean daude.

.....

– Ez gu gaude elizan.

.....

– Zu nire etxean zaudete

.....

– Zuek komunean ez zaudete.

.....

### 4) Eman aditza lehenaldian.

– Atzo armairuan ez \_\_\_\_\_ gailetarik.

– Aurreko urtean, gu zurekin haserre \_\_\_\_\_.

– Atzo ni 9etan etxean \_\_\_\_\_.

– Non \_\_\_\_\_ aurreko urteko abenduan?

– Herenegun plazan jende asko \_\_\_\_\_ .

– Iaz zuen ez \_\_\_\_\_ bakarrik etxean, ezta?

– Gu autobusean \_\_\_\_\_ zu etorri zinenean.

– Goizean zu ez \_\_\_\_\_ dantzalekuan!

- Atzoko azokan lagunak \_\_\_\_\_ barazkiak saltzen.
- Herenegun gu hondartzan \_\_\_\_\_.

## Galdetzaileak

	
<b>NOLA/ZELAN</b>	<b>nola/zelan + egon</b> aditza+ <b>pertsona/objektua</b> Adibidea: <b>Nola/zelan daude lagunak?</b>
<b>NON</b>	<b>non + egon</b> aditza+ <b>pertsona/objektua</b> Adibidea: <b>Non dago zure etxea?</b>
<b>NOR (SG.) NORTZUK (PL.)</b>	<b>nor/nortzuk+ egon</b> aditza+ <b>NON/NOLA...</b> Adibidea: <b>Nor dago hondartzan?</b> <b>Nortzuk daude hondartzan?</b>

### 5) Egin esaldiak: ordenatu hitzak eta eman aditz egokia.

Adibidea: egon / ikasgela / ikaslea → *ikaslea ikasgela dago.*

- nor / lorategian / egon / ?

.....

- zuek / baserrian / egon / ?

.....

- logelan / lehengusuak / egon / zure /.

.....

- ez / egon / gu / herrian /.

.....



– elizan / haiek / egon /.

– Peio / egon / non / ?

– baratzean/ ez / zuek / egon /.

– oporretan / nortzuk / egon / ?

– dago / basoan / baserritarra /.

– nortzuk / triste/ egon?

– egon / non / jatetxea?

## Emozioak eta sentimenduak

6) Lotu emozio/sentimendu bakoitza dagokion irudiari.

### Emozioak eta Sentimenduak

---

---

---

## Pozik

Beldurtuta

Lasai

Triste

Haserre

Maiteminduta

---

---

---

## Emozioak eta Sentimenduak



	Nazkatuta	
	Gaixorik Urduri	
	Lotsatuta	
	Nekatuta	
	Harrituta	

7) Idatzi nola sentitzen diren.



8) Aukeratu beste sentimendu bi eta egin horien marrazkia.



## Kausalak:-lako

<b>-LAKO</b>		
<b>-LAKO</b>	<b>-GU</b> <b>-ZU</b> <b>-E</b> <b>-A</b> <b>-O</b>	dugu <b>LAKO</b> duzu <b>LAKO</b> duzue <b>LAKO</b> dauka <b>LAKO</b> zai <b>LAKO</b>
<b>-ELAKO</b>	<b>-U</b> <b>-I</b> <b>-GO</b> <b>-KE</b> <b>-KONTSONANTE</b>	du <b>ELAKO</b> daki <b>ELAKO</b> dago <b>ELAKO</b> daiteke <b>ELAKO</b> naiz <b>ELAKO</b>
<b>-DALAKO</b>	<b>-T</b>	du <b>DALAKO</b>

Zergatik ?

9) Lehengo, egin galderak *zergatik* galdetzailearekin; gero, idatzi erantzunak *-lako* atzizkiarekin.

Adibidea: Joan da. Berandu da. → Zergatik joan da? Berandu de**LAKO** joan da.

– Merkea da. Erosi du.

.....

– Haserretu da. Erori egin da.

.....

– Etorri naiz. Pozik dago.

.....

- Nekatuta dago. Mendian egon da.

.....

- Negarrez dago. Txakurra galdu da.

.....

- Aspertuta dago. Etxean bakarrik dago.

.....

**10) Irakurri testua eta erantzun galderei.**

**DALILA**

Gaur goizean, Dalila alai altxatu da bere urtebetetzea delako eta lagunekin ospatuko duelako. Aurten, 18 urte egingo ditu, eta oso urduri dago. Gonbidatuak edukiko ditu etxean, eta elkarrekin afalduko dute. Dalilak pizzak egingo ditu; Italiako lagun batek erakutsi dio, eta oso goxo egiten ditu.

Dalilaren ama abisatu gabe agertuko da festan, eta pastela eramango du, alaba harritu nahi duelako. Lagunek ere sorpresa bat eman nahi diote Dalilari; horregatik, bidaia bat oparituko diote. Bidaiatzea ikaragarri gustatzen zaio, eta sorpresa horrekin oso pozik jarriko da.

- Nola dago Dalila? Zergatik?

.....

- Non ospatuko dute festa?

.....

- Zer gustatzen zaio Dalilari?

.....













- Nola jarriko da Dalila opariekin?

.....

11) Erreparatu irudiei eta sortu esaldiak *-lako* atzizkia erabiliz.

Esaldia: .....















<p><b>NOR?</b></p> 	 <p><b>MUTILA</b></p>	 <p><b>NESKA</b></p>	 <p><b>AMONA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>URDURI</b></p>	 <p><b>TRISTE</b></p>	 <p><b>ZORABIATUTA</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>EZ DIOTE UZTEN FUTBOLEAN JOKATZEN</b></p>	 <p><b>LAGUNEKIN JOLASTEN ARI DA</b></p>	 <p><b>BURUKOMINA DU</b></p>















Esaldia: .....



 <p><b>NOR?</b></p>	 <p><b>AITA</b></p>	 <p><b>UMEA</b></p>	 <p><b>AITONA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>HASERRE</b></p>	 <p><b>NEKATUTA</b></p>	 <p><b>MAITEMINDUTA</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>TXAKURRAK KANPORA JOAN NAHI DU</b></p>	 <p><b>TXAKURRAK LOREONTZIA APURTU DU</b></p>	 <p><b>TXAKURRAK HEZUR BAT JAN NAHI DU</b></p>













Esaldia: .....




<p><b>NOR?</b></p> 	 <p><b>AMONA</b></p>	 <p><b>NESKA</b></p>	 <p><b>AMA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>GALDUTA</b></p>	 <p><b>ASPERTUTA</b></p>	 <p><b>POZIK</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>LAGUNA IKUSI DU</b></p>	 <p><b>OGITARTEKO BAT JATEN ARI DA</b></p>	 <p><b>HEGAZKINEZ BIDAIATU DU</b></p>













Esaldia: .....



<p><b>NOR?</b></p> 	 <p><b>UMEA</b></p>	 <p><b>AITONA</b></p>	 <p><b>MUTILA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>NEKATUTA</b></p>	 <p><b>LOTSATUTA</b></p>	 <p><b>HASERRE</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>JOGURTA BOTA DU</b></p>	 <p><b>KRISTALA APURTU DU</b></p>	 <p><b>DENDAN EROSTEN ARI DA</b></p>

Esaldia: .....



<p><b>NOR?</b></p> 	 <p><b>AITA</b></p>	 <p><b>AMA</b></p>	 <p><b>NESKA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>GALDUTA</b></p>	 <p><b>IZUTUTA</b></p>	 <p><b>MAITEMINDUTA</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>SUZIRIA</b> <b>AIRERATU DA</b></p>	 <p><b>TXORI BAT</b> <b>HEGAN IKUSI DU</b></p>	 <p><b>GLOBO BAT</b> <b>HEGAN IKUSI DU</b></p>







Esaldia: .....



<p><b>NOR?</b></p> 	 <p><b>MUTILA</b></p>	 <p><b>AMA</b></p>	 <p><b>AITA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>NEKATUTA</b></p>	 <p><b>HARRITUTA</b></p>	 <p><b>HASERRE</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>ZUHAITZ BATERA IGO DA</b></p>	 <p><b>KORRIKA EGIN DU</b></p>	 <p><b>BARATZEAN LAN EGIN DU</b></p>

Esaldia: .....















<p><b>NOR?</b></p> 	 <p><b>AITA</b></p>	 <p><b>NESKA</b></p>	 <p><b>MUTILA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>KEZKATUTA</b></p>	 <p><b>GAIXORIK</b></p>	 <p><b>POZIK</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>SUKARRADU</b></p>	 <p><b>BERE URTEBETETZEADA</b></p>	 <p><b>ABESTEA GUSTATZEN ZAIO</b></p>















Esaldia: .....




<p><b>NOR?</b></p> 	 <p><b>NESKA</b></p>	 <p><b>UMEA</b></p>	 <p><b>AMONA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>ASPERTUTA</b></p>	 <p><b>HARRITUTA</b></p>	 <p><b>NEKATUTA</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>UMEA PILOTAREKIN JOLASTEN DA</b></p>	 <p><b>UMEAK NEGAR ASKO EGITEN DU</b></p>	 <p><b>UMEA BAKARRIK IBILI AHAL DA</b></p>













Esaldia: .....



<p><b>NOR?</b></p> 	 <p><b>AITA</b></p>	 <p><b>UMEA</b></p>	 <p><b>MUTILA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>GOSE</b></p>	 <p><b>EGARRI</b></p>	 <p><b>HASERRE</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>BERO HANDIA EGITEN DU</b></p>	 <p><b>HOTZ HANDIA DU</b></p>	 <p><b>BAZKALTZEKO ORDUA DA</b></p>

Esaldia: .....



<p><b>NOR?</b></p> 	 <p><b>AITONA</b></p>	 <p><b>UMEA</b></p>	 <p><b>AITA</b></p>
<p><b>NOLA?</b></p> 	 <p><b>IZUTUTA</b></p>	 <p><b>POZIK</b></p>	 <p><b>HASERRE</b></p>
<p><b>ZERGATIK?</b></p> 	 <p><b>EURIA ARI DU</b></p>	 <p><b>GELAN LEHOI BAT DAGO</b></p>	 <p><b>TELEBISTAN MUNSTROA IKUSI DU</b></p>

12) Nola sentitzen dira ipuin hauetako protagonistak? Zergatik?



Txerria .....

..... -lako.



Untxia .....

Ahatea.....





.....

.....



.....

.....

## Noren deklinabide-kasua

**NOREN**

1 2 3

<b>IZENORDAINAK</b>	<b>NIRE</b>	<b>ZURE</b>	<b>HAREN</b>
	<b>GURE</b>	<b>ZUEN</b>	<b>HAIEN</b>

**IZENAK**

- ARRUNTAK**  
SINGULARRA: **-(A)REN**  
txakur + **aren** = txakurraren  
neska + **ren** = neskaren
- BEREZIAK**  
**-(R)EN**  
Iñaki + **ren** = Iñakiren  
Ander + **en** = Anderren
- PLURALA: -EN**  
txakur + **en** = txakurren  
etxe + **en** = etxeen

### 12) Osatu esaldiak *noren* deklinabide kasua erabiliz.

#### Izen bereziak

- Rosa \_\_\_\_ betaurrekoak dira.
- Marian \_\_\_\_ belarritakoak dira.
- Mikel \_\_\_\_ ile urdina da.
- Pedro \_\_\_\_ txakurra galdu da.
- Ander \_\_\_\_ prakak oso zikin daude.
- Gu gaur goizean Bego \_\_\_\_ etxera joan gara.
- Zuek egunero Olatz \_\_\_\_ dendan zaudete.
- Itziar \_\_\_\_ euritakoa oso zaharra da.

### Izenordainak

- Ni \_\_\_\_ liburu hau oso polita da.
- Hau zu \_\_\_\_ aldizkaria da.
- Hori haiek \_\_\_\_ ama da.
- Gu \_\_\_\_ ordenagailua apurtu da.
- Hura \_\_\_\_ irakaslea gaixorik dago.

### Izen arruntak

- Mediku \_\_\_\_ liburuak dira hauek.
- Zuzendari \_\_\_\_ gela bigarren solairuan dago.
- Zure arreba \_\_\_\_ belarritakoak lurrean daude.
- Sendagile \_\_\_\_ mahai gainean paper asko daude.
- Ni orain osaba \_\_\_\_ baratzera joango naiz.
- Ikasle \_\_\_\_ azterketak oso zailak dira.
- Gu urtero aitona \_\_\_\_ baserrira joaten gara.

### 13) Erantzun galderi; horretarako, erabili *noren* deklinabide-kasua.

Adibidea: **Noren** baserria da hura? (zu) → Hura **zure** baserria da.

- Noren autoa da hori? (gu).  
.....
- Noren gona da hau? (ni).  
.....
- Noren liburua da hori? (zuek).  
.....
- Noren txakurra da hura? (gu).  
.....
- Noren alkandora da hori? (Miren).  
.....



– Noren euritakoa da hau? (zuek).

.....

– Noren etxea da hau? (ni).

.....

– Noren koaderno da hura? (Manex).

.....

– Noren mahaia da hori? (zu).

.....

## Norena/norenak

**NORENA**

	1	2	3
<b>IZENORDAINAK</b>	<b>NIREA(K)</b>	<b>ZUREA(K)</b>	<b>HARENA(K)</b>
	<b>GUREA(K)</b>	<b>ZUENA(K)</b>	<b>HAIENA(K)</b>

**ARRUNTAK**      **SINGULARRA: -(A)RENA(K)**      **PLURALA: -ENA(K)**  
ume+ **arena(k)**= umearena(k)      lagun+ **ena(k)**= lagunena(k)

Txakurra lagun**ena** da/ Txakurrak lagun**enak** dira.

**IZENAK**      **-(R)ENA(K)**  
**BEREZIAK**      Iñaki+ **rena(k)**= Iñakirena(k)  
Ander+ **ena(k)**= Anderrena(k)

14) Erantzun galderei; horretarako, erabili parentesi arteko hitzak.

Izen arruntak



– Norena da egunkari hau? (aita)

.....

– Norenak dira liburu horiek? (irakasle)

.....

– Norena da katu hura? (amona)

.....

– Norena da auto hori? (osaba)

.....

– Norenak dira eraztun hauek? (gazte)

.....

– Norena da zaldi hori? (gizon)

.....

– Norena da jertse hura? (izeba)

.....

– Norena da etxe hori? (lagun)

.....

- Norenak dira azterketak? (ikasle)

.....

### **Izen bereziak**

- Norena da denda hura? (Miren)

.....

- Norena da euritako hau? (Paulo)

.....

- Norena da motxila hau? (Mikel)

.....

- Norenak dira koaderno horiek? (Edurne)

.....

- Noren aitona da hura? (Jon)

.....

### **Izenordainak**

- Norenak dira betaurreko horiek? (zu)

.....

- Norena da hango jertsea? (ni)

.....

- Norenak dira hemengo kamiseta zuriak? (gu)


.....

- Norenak dira animalia horiek? (haiek)


.....

15) Bete hutsunea dagokion erakuslearekin.

- Lore \_\_\_\_\_
- Betaurreko \_\_\_\_\_
- Aulki \_\_\_\_\_
- Liburu \_\_\_\_\_
- Hegazkin \_\_\_\_\_
- Ohe \_\_\_\_\_
- Soineko \_\_\_\_\_
- Motor \_\_\_\_\_
- Arbel \_\_\_\_\_
- Guraize \_\_\_\_\_
- Sukalde \_\_\_\_\_
- Arkatz \_\_\_\_\_
- Txapel \_\_\_\_\_
- Erregela \_\_\_\_\_
- Bota \_\_\_\_\_
- Bizkar-zorro \_\_\_\_\_
- Mendi \_\_\_\_\_
- Leiho \_\_\_\_\_
- Margo \_\_\_\_\_
- Hondartza \_\_\_\_\_
- Behi \_\_\_\_\_
- Pilota \_\_\_\_\_



16) Aukeratu erakusle egokia, kasu bakoitzean:



- **Hemengo** aulki \_\_\_\_\_ oso eroso da.
- **Hango** ume \_\_\_\_\_ haserre daude.
- Gaztelua **han** ikusten den \_\_\_\_\_ da.
- Eskuan daukadan gozoki \_\_\_\_\_ oso gozoa da (**hemen**).
- Nire ama **hor** dagoen emakume \_\_\_\_\_ da.
- **Horko** txerri \_\_\_\_\_ gizen-gizen dago.
- **Hemengo** lore \_\_\_\_\_ hilda dago.
- **Hango** mutiko \_\_\_\_\_ zure auzokideak dira.
- **Hemengo** poltsa \_\_\_\_\_ ezin dira erabili.
- **Horko** etxe \_\_\_\_\_ berri-berri daude.
- Kontuz! **Horko** irakasle \_\_\_\_\_ haserre dago.
- **Hemengo** erloju \_\_\_\_\_ atzeratuta dago.
- **Hemengo** liburu \_\_\_\_\_ zaharrak dira.
- **Horko** baserri \_\_\_\_\_ salgai dago.
- **Hango** bizkar-zorro \_\_\_\_\_ Mikelena da.
- **Horko** katu \_\_\_\_\_ lotan dago.
- **Hemengo** mendi \_\_\_\_\_ elurtuta daude.

## 17) Irakurri testua eta erantzun galderei.



### ADUR

Adur aitaren anaia da, gure osaba. 60 urte ditu, eta Nafarroako mendi puntan bizi da. Bakarrik dago emaztea aurreko urtean hil zitzaiolako eta seme-alabak kanpoan ikasten ari direlako.


Osabaren etxea baserri handi bat da. Aitona-amonena zen, eta berak oso-osorik berriztu du. Orain oso polito dago. Osabaren baserria herritik urrun dago, eta erosketak egiteko autoa behar du. Oso pertsona lasaia da; horregatik, askotan inguruko baso eta mendietara joaten da ibiltzera.

Ez da aspertuko!

Osaba han bakarrik ibiltzea arriskutsua da. Niri beldurra ematen dit oso erraza delako istripu bat gertatzea. Pasa den astean, adibidez,

osaba galdu egin zen mendian. Lainoa zegoen negua zelako, eta ez zen ezer ikusten. Osabak ez zuen bere etxeko bidea aurkitu, eta bi egun galduta ibili zen mendian. Oso kezkatuta nengoen. Zergatik joan zen mendira? Nola egon zen bi egun horietan? Laster, haren urtebetetzea da, eta osabak niri dena kontatzea espero dut. Irrikan nago.

Egun horretan sorpresa bat emango diot: txakur bat oparituko diot!



**Galderak:**

1) Norena zen osabaren etxea lehen?

.....

2) Zergatik bizi da bakarrik osaba?

.....

3) Nolakoa da osaba?

.....

4) Zergatik galdu zen?

.....

5) Nola dago idazlea?

.....

6) Zer oparituko dio Unai osabari?

.....

7) Zergatik oparituko dio?

.....



18) Nola sentitu zara aste honetan? Zergatik? Idatzi *Sentimenduen inbentarioan*.



# SENTIMENDUEN INBENTARIOA





**DATA:**

**Nola sentitu ngiz? zergatik?**

**Goizean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Arratsaldean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Gauean:**

.....  
.....  
.....  
.....



**DATA:**

**Nola sentitu ngiz? zergatik?**

**Goizean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Arratsaldean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Gauean:**

.....  
.....  
.....  
.....





**DATA:**

**Nola sentitu ngiz? zergatik?**

**Goizean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Arratsaldean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Gauean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**DATA:**

**Nola sentitu ngiz? zergatik?**

**Goizean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Arratsaldean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Gauean:**

.....  
.....  
.....  
.....



**DATA:**

**Nola sentitu ngiz? zergatik?**

**Goizean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Arratsaldean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Gauean:**

.....  
.....  
.....  
.....





**DATA:**

**Nola sentitu ngiz? zergatik?**

**Goizean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Arratsaldean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Gauean:**

.....  
.....  
.....  
.....



**DATA:**

**Nola sentitu ngiz? zergatik?**

**Goizean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Arratsaldean:**

.....  
.....  
.....  
.....

**Gauean:**

.....  
.....  
.....  
.....

### 3. Ikas-egoera: *Nolakoa naiz ni?*

#### JUSTIFIKAZIOA

Ikasle atzerritarrekin euskarazko komunikazio-gaitasuna landu beharra dago; horrek ideiak, emozioak eta sentsazioak helarazteko aukera emango die. Era berean, komunikazio-gaitasunari esker, alderdi kritiko, sortzaile eta gogoetatsua garatuko dute.

Deskribatzea azaltzea da; hau da, ikusten edota sentitzen den hori hitzen bidez irudikatzea. Deskribatzean, pertsonen, gauzen eta objektuen gaineko informazioa ematen da, eta egunerokotasunean gehien erabiltzen den testu-tipoetako bat da. Deskribapen-testuak erabiltzen dira lagun berriak ezagutzean, lanpostu batera aurkeztean, objektu bat nolakoa den azaltzean...

#### HELBURUA

Ikas-egoera honen helburua da komunikazio-gaitasuna lantzea eta ikasleak deskribapen-testuak sortzeko, aztertzeko eta ulertzeko gai izatea. Hori lortzeko asmoz, ikasleek deskribapen-testuak irakurri, interpretatu eta ekoiztuko dituzte.

Testu-mota hau lantzerakoan, zeharka, hainbat kontzeptu jorratuko dira: alde batetik, koherentzia, argitasuna eta zehaztasuna; bestetik, lexikoa, adjektiboak bereziki.

#### AZKEN ZEREGINA

Nork bere erretratu kubista egingo du. *Collage* bat izango da, eta, horretarako, aldizkari-zatiak erabiliko dituzte. Irudia egiten bukatzen dutenean, horrekin bat datorren deskribapen-testua sortuko dute. Bertan, ikas-egoeran zehar landutakoa islatuko da: koherentzia, kohesioa, adjektiboak, gorputz-atalak...

## OINARRIZKO JAKINTZAK

- Gorputz-atalekin lotutako lexikoa
- *Norekin* deklinabide-kasua
- *Nori* deklinabide-kasua
- *Ukan* aditza
- Adjektiboak
- Informazioa bilatzeko eta hautatzeko estrategiak
- Hizkuntzaren eta haren unitateen oinarrizko nozioak: soinua eta idazketa-sistema, hitzak eta diskurtsoaren antolaketa
- Ahozko eta idatzizko testuak sortzeko, ulertzeko eta analisi kritikoa egiteko estrategiak
- Testuen edukia aztertzeko eta balioesteko jarraibideak
- Estrategia kooperatibo errazak eta talde-lanean aritzeko estrategiak




# JARDUERAK


## Gorputz-atalak



1) Idatzi dagokion gorputz-atalaren izena.









## Ezaugarri fisikoei lotutako adjektiboak

2) Bilatu adjektiboak eta egin horien zerrenda, talde txikian jarrita.

Adibidea: *altua, argala...*

-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	-	-

3) Antolatu ezaugarriak eta osatu taula, talde handian jarrita.

Gorputza	Ilea	Begiak	Bestelakoak
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-

4) Oraindik aipatu ez badituzue, kokatu hauek ere taulan:

Kizkurra, argala, bizarduna, betaurrekoduna, estua, beltzarana, ilehoria.

5) Aurkitu 7 gorputz-atal hizki-saldan.

K	O	W	B	B	B	U	R	U	A	L	K	T	E	I
U	I	H	G	F	A	O	L	R	T	E	R	K	N	O
L	M	O	D	E	L	T	I	R	J	E	R	S	T	W
L	A	K	Q	W	D	F	G	H	J	A	U	U	I	E
U	E	E	K	O	M	A	E	N	E	T	I	D	U	F
X	K	S	L	A	B	E	T	N	I	R	R	U	E	A
E	I	E	O	F	D	A	A	E	A	B	N	R	O	I
B	E	G	I	A	E	F	B	E	L	A	R	R	I	A
N	B	N	O	E	L	E	F	I	A	L	S	A	B	B
A	I	P	A	K	M	C	X	A	E	I	L	N	O	A
A	K	O	X	B	E	K	O	K	I	A	M	L	O	H
S	Z	I	B	D	E	O	O	R	R	I	N	T	I	O
T	Z	O	I	N	A	E	E	R	T	M	I	L	E	A
X	D	R	J	E	S	K	U	A	B	N	N	N	O	P
I	O	K	N	A	B	U	G	L	L	G	U	T	R	A

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....
- 5 .....
- 6 .....
- 7 .....

6) Idatzi pertsona bakoitzaren ezaugarriak irudiaren ondoan.

The worksheet consists of a vertical list of five white rectangular boxes on the left side, each intended for writing the characteristics of the person shown in the illustration to its right. The illustrations are as follows:

- Top: A man with a full brown beard, a blue headband, and blue-rimmed glasses.
- Second: A woman with dark curly hair styled in a bun, shown in profile.
- Third: An elderly man with a long, grey beard and balding head.
- Fourth: A muscular woman with brown hair, wearing a pink sports top and blue shorts, flexing her arms.
- Bottom: A young girl with bright orange hair, wearing a green top.

## Nori deklinabide-kasua

**NORI**

1 2 3

<b>IZENORDAINAK</b>	<b>NIRI</b>	<b>ZURI</b>	<b>HARI</b>
	<b>GURI</b>	<b>ZUEI</b>	<b>HAIEI</b>

**IZENAK**

- ARRUNTAK**
- BEREZIAK**

**SINGULARRA: -(A)RI**  
itxakur + **ari**= txakurrari  
neska+ **ri**= neskari

**PLURALA: -EI**  
txakur + **ei**= txakurrei  
mutil+ **ei**= mutilei

**-(R)I**  
Maite+ **ri**= Maiteri  
Mikel+ **i**= Mikeli

### 7) Deklinatu hitz hauek.

#### Izenordainak

- Ni → \_\_\_\_\_
- Gu → \_\_\_\_\_
- Zu → \_\_\_\_\_
- Zuek → \_\_\_\_\_

#### Izen bereziak

- Ali → \_\_\_\_\_
- Mikel → \_\_\_\_\_

- Jone → \_\_\_\_\_
- Amaia → \_\_\_\_\_

**Izen arruntak**

- Mutilak → \_\_\_\_\_
- Umea → \_\_\_\_\_
- Neskak → \_\_\_\_\_
- Ikasleak → \_\_\_\_\_
- Gizona → \_\_\_\_\_
- Emakumeak → \_\_\_\_\_
- Irakasleak → \_\_\_\_\_
- Euskaldunak → \_\_\_\_\_
- Animalia → \_\_\_\_\_
- Lapurra → \_\_\_\_\_
- Lapurrak → \_\_\_\_\_
- Gazte → \_\_\_\_\_

**8) Erantzun galderei.**

- Nori apurtu zaio bizikleta hori? (gazte hau)

.....

- Nori hurbildu zaio ikaslea? (zuzendari hori)

.....

- Nori erre zaio baserria? (baserritar horiek)

.....

- Nori bukatu zaio janaria? (ni)

.....

- Nori erori zaio liburua? (zu)

.....



- Nori etorri zaizkio lagunak? (gurasoak)

.....

- Nori galdu zaizkio betaurrekoak? (Miren)

.....

- Nori ahaztu zaio koadernoak? (ume)

.....


- Nori zikindu zaizkio prakak? (gazte)

.....

## 9) Deklinatu parentesi arteko hitzak.

### Erakusleak

- Ume (hau) \_\_\_\_\_ liburua galdu zaio.
- Neska (hori) \_\_\_\_\_ egunkaria erori zaio.
- Auto (hura) \_\_\_\_\_ gorpila falta zaio.
- Mutil (hauek) \_\_\_\_\_ liburua gustatu zaie.
- Ikasle (horiek) \_\_\_\_\_ txokolatea ahaztu zaie.
- Gizon (haiek) \_\_\_\_\_ mugikorra apurtu zaie.
- Alkandora (hauek) \_\_\_\_\_ botoiak falta zaizkie.
- Katu (hau) \_\_\_\_\_ arraina gustatzen zaio.
- Mahai (hori) \_\_\_\_\_ kaxoiak apurtu zaizkio.
- Ume (hura) \_\_\_\_\_ goxokiak gustatzen zaizkio.



- (Hau) \_\_\_\_\_ gatza falta zaio.
- Neska (hauek) \_\_\_\_\_ dirua galdu zaie.
- (Haiek) \_\_\_\_\_ etxeko giltzak ahaztu zaizkie.
- Mutil (hura) \_\_\_\_\_ korrika egitea gustatzen zaio.

### **Izen bereziak**

- (Lore) \_\_\_\_\_ ura falta zaie.
- (Ines) \_\_\_\_\_ gona apurtu zaio.
- (Miren) \_\_\_\_\_ etxea erre zaio.
- (Isra) \_\_\_\_\_ irakurtzea asko gustatzen zaio.
- (Unax) \_\_\_\_\_ ez zaio garagardoa gustatzen.
- (Safa) \_\_\_\_\_ diru-zorroa galdu zaio.

### **Izen arruntak**

- (Ama) \_\_\_\_\_ lapikoa erre zaio.
- (Txakurrak) \_\_\_\_\_ hezurak gustatzen zaizkie.
- (Neska) \_\_\_\_\_ ez zaio Bilbo gustatzen.
- (Gurasoak) \_\_\_\_\_ parkean umeak galdu zaizkie.
- (Lagun) \_\_\_\_\_ aita hil zaio.

## Gustatu aditza

NIRI ZURI HARI GURI ZUEI HAIEI	ekintza + -t(z)ea	gustatzen	ZAI(ZKI)T ZAI(ZKI)ZU ZAI(ZKI)O ZAI(ZKI)GU ZAI(ZKI)ZUE ZAI(ZKI)E
	objektua		

(EKINTZA) + -T(Z)EA	Lagunari <b>korrika egitea</b> gustatzen zaio. Gurasoei <b>dantzatzea</b> gustatzen zaie. Amonari <b>abestea</b> gustatzen zaio
(OBJEKTUA)	Liberi <b>loreak</b> gustatzen zaizkio. Niri <b>txokolatea</b> gustatzen zait. Zuri <b>gozokiak</b> gustatzen zaizkizu.

NIRI ZURI HARI GURI ZUEI HAIEI	<b>EZ</b>	ZAI(ZKI)T ZAI(ZKI)ZU ZAI(ZKI)O ZAI(ZKI)GU ZAI(ZKI)ZUE ZAI(ZKI)E	ekintza + -t(z)ea	gustatzen
		objektua		


(EKINTZA) + -T(Z)EA	Lagunari <b>ez</b> zaio <b>korrika egitea</b> gustatzen. Gurasoei <b>ez</b> zaie <b>dantzatzea</b> gustatzen.
(OBJEKTUA)	Liberi <b>ez</b> zaizkio <b>loreak</b> gustatzen. Niri <b>ez</b> zait <b>txokolatea</b> gustatzen.

10) Adierazi irudiko ekintzak/objektuak gustuko dituzun ala ez.




 	

11) Deskribatu gustuko duzun pertsonaia famatu bat. Ondoren, aurkeztu talde handian.



Edurne Pasaban alpinista euskalduna da. Oso ezaguna da. Edurnek nahiko ile luzea eta marroia dauka. Begi ilunak eta irribarre polita dauzka. Edurne Pasabani mendi altuak igotzea eta leku berriak ezagutzea asko gustatzen zaio.





**Norekin deklinabide-kasua**

## NOREKIN

	1	2	3
<b>IZENORDAINAK</b>	<b>NIREKIN</b>	<b>ZUREKIN</b>	<b>HAREKIN</b>
	<b>GUREKIN</b>	<b>ZUEKIN</b>	<b>HAIEKIN</b>

**ARRUNTAK SINGULARRA: -(A)REKIN**  
katu+ **arekin**= katuarekin  
neska+ **rekin**= neskarekin

**PLURALA: -EKIN**  
txakur + **ekin**= txakurrekin  
mutil+ **ekin**= mutilekin

**IZENAK**

**BEREZIAK -(R)EKIN**  
Jon + **ekin**= Jonekin  
Joseba+ **rekin**= Josebarekin

**12) Deklinatu parentesi arteko hitzak *norekin* deklinabide-kasua erabiliz.**

**Izen arruntak**

- Imanol Parisen dago (lagun) \_\_\_\_\_.
- Hizketan gaude (atezain) \_\_\_\_\_.
- Gaur (lehengusu) \_\_\_\_\_ etorri da afaltzera.
- Anaia (ikaskide) \_\_\_\_\_ doa oporretan.
- Nik (osaba) \_\_\_\_\_ hitz egin nahi dut.
- Peru (auzoko) \_\_\_\_\_ dago kalean.
- Gaur (maisua) \_\_\_\_\_ noa afaltzera.
- Guk (kantu) \_\_\_\_\_ joan nahi dugu kalera.
- Txakur beltza (nekazari) \_\_\_\_\_ dago.
- Guk (tabernari) \_\_\_\_\_ ligatu nahi dugu.
- Begok (txori) \_\_\_\_\_ jolastu nahi du.
- Umeek (guraso) \_\_\_\_\_ joan nahi dute zirkura.
- Anaia (nagusi) \_\_\_\_\_ etorri da festara.
- Gizon (polit) \_\_\_\_\_ daude taberna hartan.

**13) Erantzun galderei *norekin* deklinabide-kasua erabiliz.**

**Izen bereziak**

- Norekin afaldu du Anttonek? (Marisa)  
.....
- Norekin etorri da Imanol? (Koldo)  
.....
- Norekin joan da Lupe? (Izaskun)  
.....
- Norekin hitz egin du Josunek? (Xabier)  
.....
- Norekin ibiltzen da ama? (Andoni)  
.....



– Norekin joan behar dugu mendira? (Markel)

.....

– Norekin haserretu da Unai? (Gorka)

.....

– Norekin ari da alaba hizketan? (Amil)

.....

– Norekin bizi da Kepa? (Yaxin)

.....

### **Izenordainak**

– Norekin galdu da? (haiek)

.....

– Norekin joan da hondartzara? (hura)

.....

– Norekin dago haserre? (zu)

.....

– Norekin joango zara bazkaltzera? (zuek)

.....

– Norekin egongo da June? (ni)

.....

– Norekin egon nahi duzue? (zuek)

.....

– Norekin jolastu nahi dute partida? (gu)

.....

– Norekin ikusi duzue Alizia? (haiek)

.....

## Ukan aditza

<b>PERTSONA</b> (NORK)	<b>SINGULARRA</b> (NOR 3. PERTSONA)	<b>PLURALA</b> (NOR 3. PERTSONA)
NIK	DUT	DITUT
ZUK	DUZU	DITUZU
HURAK	DU	DITU
GUK	DUGU	DITUGU
ZUEK	DUZUE	DITUZUE
HAIEK	DUTE	DITUZTE

**HIZTEGIA:**

- URTE
- ANIMALIA
- ANAIA
- ARREBA
- LEHENGUSU
- AMA
- AITA
- AMONA
- AITONA

### 14) Eman dagokion aditza.

- Begok ahoan **gozokia** \_\_\_\_\_.
- Guk buruan **ilea** \_\_\_\_\_.
- Gizonak eskuan **egunkaria** \_\_\_\_\_.
- Gazteek buruan **txapela** \_\_\_\_\_.
- Nik etxean **poltsa** \_\_\_\_\_.
- Amak sukaldean **olioa** \_\_\_\_\_.
- Zuk edalontzian **ardoa** \_\_\_\_\_.
- Iratxek atzamarrean **eraztuna** \_\_\_\_\_.
- Sendagileak autoan **euritakoa** \_\_\_\_\_.
